

AFRIKAKO ADARRA GOSEA HILTZEN ARI DA

Posted on 18/07/2011 by Naider



Afrikako Adarrean, Kenyako zenbait lekutan, Somalia eta Etiopia, hamar mila lagunek pobrezia izugarritik ihes egiten dute Etiopia eta Kenyako laguntza humanitarioko kanpamenduetara. Lehorteak, oinarritzko elikagaien prezioaren igoerak eta Somalian bizi den indarkeria eta kontrol falta egoerak eragiten ari dira gizakiak une honetan jasaten ari den ezbeharrik handiena. Eta egoera are larriagoa da, ahal bada. Gaur egun desnutrizioa jasaten duten haur hauek guztiek

sekuela konponezinak jasango dituzte bizitza osoan. Hori zortea badute. Antza denez, amak seme-alaba batengan daukaten elikagai eskasari lehentasuna eman behar dion egoera ankerraren aurrean aurkitzen dira haietako bat behintzat salbatzeko.

Egoera hauetan heriotza bakar batek nahikoa izan beharko luke milioika kontzientzia astintzeko. Zer bihurtuko gara, panorama hau begien aurrean dugularik, Espainiaren zorra lau lepo zuriren mesedetan gordetzeaz edo inork deitu ez gaituen herrialdeetan gerra egiteko milioi eta milioi euro gastatzeaz gehiago kezkatzen bagara.

Hurrengo bideoa oso gogorra da baina ikusi behar duzu. Pertsonalki, lotsa ematen dit iparraldeko gizarteekin, hori konpontzeko bitartekoak izanik, hori gertatzea uzten ari garela. Eta gehiago gaur egun, non badirudi ez dagoela krisi ekonomikoa baino.